

Unamunoren 'Paz en la guerra' nobelaren irakurketa filosofikoa kaleratu du Azurmendik

2012-05-29



Joxe Azurmendi

Miguel de Unamunoren "Paz en la guerra" (Bakea gudan) nobelaren irakurketa filosofikoa argitaratu du Txalapartak. Joxe Azurmendik idatzi du eta honen arabera, XIX.mendeko filosofia puskatu eta gainditu dutenen artean Unamunok garrantzi handia izan du. Unamuno bere kontraesanetan ulertu behar dugula dio Azurmendik eta horregatik, aipatu nobelaren inguruan egindako tesi espainolistak faltsifikazio bat direla adierazi du.

Hitzaurrea Joseba Sarrionandiak idatzitakoa da. Bertan, Unamunoren nobela testimoniala, zer pentsatua ematen duena, errealista eta lirikoa dela esan du Sarrionandiak. Gainera, Azurmendik Unamuno ondo azaldu duela aipatu du, "agian hark zituenak baino baliabide gehiago dituelako eta, batez ere, denboraren abantaila daukalako" dio.

Azurmendik asteburuan Larrabetzun egingo den Literaturia euskal literaturaren agertokiaren aurretik aurkeztu du liburua, Literaturia eta euskarazko liburuak kaleratzen dituzten argitaletxeen laguntzari esker.